



ZARAUZKO UDALA

ALKATETZAREN BANDOA

2021eko EUSKAL JAIETAKO OSPAKIZUN-EKITALDIAK BERTAN BEHERA UTZI DIRA

Irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, Euskal Jaiak ospatzen dira Zarautzen 1924. urtetik. Gure herrian guztiz errotutako festa-eguna da.

Covid19aren osasun-krisiak jarraitzen duenez, aurten ere derrigortuta gaude Euskal Jaiaren barruan urtero ospatzen ditugun ekitaldiak bertan behera uztera, bai Udalak berak antolatutakoak, bai talde, kuadrilla eta, oro har, festan parte hartzen duen eta kaleak girotzen dituen jende guztiak antolatutakoak.

Inplikaturako erakunde guztiek jai-ospakizunik ez egiteko eskatzen dute, kutsatzeen gorakadan ondorio zuzen eta berehalakoak dituztelako eta, txertaketa-prozesuan aurrerapenak egon diren arren, gizarte osoari eragiten dietelako.

Horregatik, herritar guztiei gogorarazi behar diet honako neurri hauek bereziki errespetatu behar direla, bai eta, jakina, erakunde eskudunek onartutako xedapenetan ezarritakoak ere:

- Ezingo da erromeriarik edo musika edo dantza ikuskizunik egin espazio irekietan, ezta beste ekitaldi herrikoirik ere bide publikoan (desfileak, kaleko emanaldiak, kalez kaleko ikuskizunak edo jendearekin egiten direnak).
- Debekatuta dago bide publikoan salmenta-postuak jartzea (kalez kaleko salmenta barne).
- Zarauzko ostalaritzako establezimenduen itxiera-ordutegi berezia etenda dago. Hortaz, ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak Eusko Jaurlaritzak ordutégiei eta edukierei buruz ezarritako arauak errespetatu beharko dituzte.
- Inola ere ezingo dira kanpoko barrak jarri.
- Udaltzaingoak zorrotz zainduko ditu bide publikoan baimenduta dauden okupazioak (mahaiak eta eserlekuak) eta gainerako baldintzak.
- Jenderik ez pilatzeko, ezingo dira honako hauek egin:
 - Gogoan izan guztiz debekatuta dagoela "botiloia" egitea.
 - Debekatuta dago kalean jatea eta edatea (gosariak, hamaiketakoak, bazkariak, afariak), tabernetako/kafetegietako/jatetxeetako terrazetan eserita izan ezik.
 - Debekatuta dago festa hauetan ohikoak diren ibilgailuekin kalean zirkulatzea (karroak, karrotxoak, traktoreak, karrozak edo beste edozer).
 - Orokorrean ezingo dira egin arriskua sor dezaketen edo egoerarekin bateraezinak diren ekitaldi edo jarduerak.

Murrizketak jasan behar ditugun azken urtea izango delakoan, pertsona guztiei gizalegez jokatzeko eskatu nahi diet, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezarritako neurriak zorrotz bete ditzaten.

Zarautz, 2021eko abuztuaren 26a
Jarduneko Alkatea



Sin.: Jesus Arana Gomez